

UNTZIGINTZAREN HISTORIA (II): Grezia eta Erroma

Iñaki Azkune

Feniziarren ondoren, greziarren nagusitasuna azaldu zen itsasoan ia mila eta bostehun urtetan zehar. Independenten bizi izan ziren artean, greziarrak egin ziren Mediterraneo itsasoaren jabe. Beren itsasuntziak bide, merkataritza eta politikan nabarmendu ziren. Itsasoan burrukan egin ondoren garaitsa sonatuak lortu zituzten Kristo aurretik *Salamina*-n 480.ean, *Sirakusa*-n 415.ean eta *Égos Potamos*-en 404.ean. Baina horretarako greziarrek bazuten untxi aproposa: hiru arrunlerrozko itsasuntzia hain zuten.

Gerluntzi honek 100 tona garraia zitzakeen eta 200 pertsona eramateko gauza zen 35 metro luze eta 4 metro zabal izanik, saihets bakoitza 24 arraun luzez hornitua zegoen. Haizearen indarra, bela karratu batek jasotzen zuen eta untxiaren gobernurako bi lema zituen. Zamatagian, zorti egunetarako nahia janari eta edari pilatzen zuten. Zubian berriz, arma ugari zegoen erasotzeko.

Astuna izanagatik, bizkorra zen gerluntzi hau. Egin diren kalkulu zehatzetan arabera, orduko bederatzia edo hamar millako abiadura zuela dakigu. Luzea eta estua zen untxia; azkarra beraz, eta Mediterranioko uhin txikiak erraz ebakitzen zituen branka luzeak. Baina burrukaldietan hiru arraunlerrozko untxi jaun eta jabe bazen ere, beste mila eratako untxiak zituzten greziarrek. Hiru arrunlerrokoari ere aldaketak egin zizkioten: belaren tamaina, arraunen banaketa eta abarretan.

Agamemnon eta Ulises-en untxiak, greziarrek kopiatu zituztenen antzekoak ziren inola ere. Baina *Cypre* eta *Athenas*-ko zenbait baxuerliebe aztertuz gero, hasieran gaizki kopiatu zuten greziarrek; untxi biribilduak, gilarik gabekoak, branka eta popa berdintsukoak

eta bospasei pertsona bakarrik eramateko modukoak bait ziren.

Argonauten untxia, egin diren ikerketek adierazten dutenez, lehen pentsatu baino txikiagoa zen; gaurko arrantzuuntzien tamainukoa gutxi gorabehera. *Thuzidides*-ek dionez, forma eta neurri desberdin askotakoak ziren *Athenas*, *Peloponeso* eta *Sirakusako* hiru arraunlerrozko untxiak. *Athenas*-koak, lirain eta arin itxura zuten. *Peloponeso*-koak aldiz, astunak eta material nahiz pertsonaz beteak ziren. *Polbio*-k ere, *Filippo* Mazedoniarrek parte hartutako burrukaldi bat deskribatzerakoan, hiru arraunlerrozko bi untxi desberdinen berri ematen du: bata arina zen eta beste astuna. Beraz, untxigile bakoitzak bere eritzi eta sistemaren arabera egiten zituen gerluntziak.

Merkataritzarako untxiak ordea, ez ziren hain desberdinak. Feniziarren untxietan oinarriturik zeuden. Biribilduak ziren, saihetsalde altukoak; gila sakonekoak. Merkatal untxiak, ia haize-indar hutsez garraltzen zituen zama astunak edozein urtarotan urrutiraino. Baina ez zen noski, gerluntzia bezain azkarra. Hai-zeak norabide egokiz jotzen zuenean, gehienez ere orduko zazpi edo zortzi milia egiten omen zituen.

Dena dela, greziarren untxigintzak *Ptolomeo Filopator* eta *Sirakusa*-ko *Hieron*-en agintepari harrapatu zituen gainak *Ptolomeo*ek, erabat untxizalea zenez, bostehuneko flota eraikitzea agindu zuen. *Korintho*, *Kalzis* eta *Athenas*-ko untxiolatan egin zituzten *Ptolomeo* beraren buru zela. Agintaria bera aritu zen xehetasun guztiez arduratuz. Gero gainera, untxi erraldoia eraikitzea buruwatu zitzaion berrogei arraunlerrozko gerluntzia. Ilkaragarria




zen hau, 280 metro luze, 48 metro altu, 400 marinel, 14 000 arraunlari eta 3.000 soldadu zituen. Hala ere, Mediterrainoko erraldoi honen ez zuen lanik egin burrukaldiran. Nabigatzerakoan zituen zailtasunengatik, inongo kapitainik ez zen ausartu untxi hura gidatzera. Azkenean, gezal eta gorbel artean itota desegin beharrez aurkitu ziren.

Hieron-ek besetik, asmo desberdinak zituen. Honek bakealdirako untxiak, eraikitzeari ekin zion Korintho-ko Arkitas-i emandako aginduaren arabera, zama-untxi ikaragarria egingo zuten Sicilia-ko gailak Egipto-ra garraiatzekotan Alexandriarra izena ipini zioten eta 5.000 tona eramateko gauza zen Untzia uretartzeko, Arkimedes-ek dibidietan edo kabres-tante bereziak asmatu beharra izan zuten Untziaren luzera 90 metrokoa zen, 800 arraunlari zituen eta beste 400 marinel ere eraman zitzakeen.

Urtebetean bukatu zuten untxia Hiru zubi gainjarri, marinelentzako ohedun ganbaroteak, luxuzko ganbarak, palestra bat eta soldaduentzako zortzi dorre zituen. Bere lehen bidaia Egiptora egin zuenean, 0.000 kintale garau, 20.000 talentu artile eta beste 20.000 talentu merkantzia garraiatu zituen. Guzti hori, Kristo aurreko hirugarren mendean.

Greziarren ondoren, Erromatarrek egin ziren nagusi. Indartsu nabarmendu ziren beren inperioa bazter guztietaraino hedatuz. Baina erromatarren inperioa, lehorrean oinarritua zegoen. Itsasoa menperatzeari, ezinbestean ekin zioten. Izan ere Karthago Sardinia, Korsika eta Espainiako kostaldearen jabe zen bere itsasuntziari esker eta horrek Erromako inperioa ikaratu egiten zuen. Karthagotarrak Siciliarekin burrukan ari ziren gainera, eta erromatarrek lehendabizikoz itsasoan aurka egin ziren.

Erromatarrek, hutsetik hasita dena prestatu behar izan zuten itsasoko burrukaldirako. Ez zuten almiranterik. Jeneral, Kontsul edo pretoreak itsasoratzen ziren beren soldaduekin premia zegoenean, eta gero, lehorrean jarraitzen ziren lanean. Baina Karthagotarrekin zuten gerra latzak bultzatuta, gerlauntziak egin zituzten itsaspolitikaren eraginez. Karthago deuseztu zutenean, itsasoko burrukaldirak ia erabat desaqertu ziren. Harrez gero, Accio-



-koa izan zen famatuena. Ekialde eta Mendebaldeko zibilizazioen arteko gudaldia zen hura. Mendebaldean irabazi zuen.

Erromatarren agintepean, Mediterraneoan nabigatzen zuten untxiak gero eta berdinagoak ziren. Greziarrek bezalaxe, erromatarrek hiru arraunlerrokoa erabiltzen zuten, baina hobakuntza batzuk ezarri. Pasabide luzeak bate-tik abordaiarako eta azpikaldean bizki edo ga-

ko indartsuak ere bai etsaien untxian itsatsi eta lehorren bezala erasotzekotan. Hala ere, arma nagusi brankapeko muturra zen. Bron-tzeko hiruortzekoa zegoen hau, etsaien untxiak hondoratzeko arma aproposa.

Baina Accio-ko gudaldiaren ondoren, hiru arraunlerroko untxia bateztuta, liburna izenekoaz baliatu ziren.

